



# Jesus Estrada Arrondo

## «Gerraren ondorioz hilak ez, fusilatu egin zituzten!»

1937ko martxoak 31. Gasteizko Bakea kaleko kartzelan libre utzi dituzte hamasei lagun.

Ondo libre. Bi ibilgailutan sartu eta Lizarrara bidean Azazetan gora abiatu dira. 16.

kilometroa agintzen duen mugarria baino lehen geratu dira. Preso "libre" utziak jaitsi arazi dituzte. Abadearekin egin dituzte azken hitzak. Binaka lotu eta mendian barrena ibili dituzte berrehun bat metro iturrira iritsi arte. Han, zuloa eginarazi diete. Tiroka hartu dituzte gero. Hilik dautzate hamaseiak. Azazetan gora. Toki gorde ezkutuan. Bertara ekarri gaitu hildako baten ilobak, haren izen berekoak: Jesus Estrada. "Hementxe asasinatu zituzten", esan digu, lurra hartuz eskuan...

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

...

Zortzi-bederatzi urte daramatzat lan honetan. Ekin nionetik, hainbat ohar ditut bildu eta idatziak. Hasiera hari dagokion bat irakurriko dizut, tankera eman diezaiozun. "Frantzisko Kintana Estibalitzen etxean izan naiz 2000ko apirilaren 19an. Nire lankide baten aita da Frantzisko. Gorpuak non lurperatu zituzten jakin nahi nuela adierazi diot. Berak leku zehatzera eraman ninduen. Frantzisko Kintanak 18 urte zituen sasoi hartan..."

### 1937an, Azazetakoa gertatu zenean...

Bai. Kintanarekin hitz egin ondoren idatzitako oharra ditut hauek. Izan ere, grabagailua ikusi zueneko isildu, mututu egin zitzaidan. Hortaz, berriketan jardun behar izan nuen gizonarekin eta, ondoren, paperean jarri nuen gogoan geratu zitzaidana. Irakurtzen segituko dut: "18 urte zituen sasoi hartan. Dio beste zenbait neska-mutilekin batera joan zela hil zituzten lekura. Ez du gogoratzen zein izan ziren berarekin. Oine-

takoak eta beste ikusi zituzten lur artean barreiatuta. Ez zen hara atzera egundo itzuli eta ez daki gainerakoak itzuli ziren ala ez. Gerora, gorpuak 1978ko uztailearen 31n atera zituzten. Hildakoen senide batek, Pedro Ruiz de Azuak -hila da-, eraman zituen Lauzurika hileta-zerbitzukoak leku hartara. Salbatoreko hilerrian ehortzi zituzten. Lekua Inimiritxi izeneko iturriaren ondoan dago. Ruiz de Azua haren familia Pedro Anitua abadeari oso estu lotuta egon zen. Izan ere, Pedro Anitua Egiletako abadea zen garai hartan eta, aldi berean, Jose Luis Abaituaren tutorea zen.

### Jose Luis Abaitua?

Bai, fusilatuetako bat. 1937ko martxoaren 31n Azazetako portuan fusilatu zituzten hamasei haietako bat. Frantzisko Kintana Egiletako portura bidean zeuden lehenengo etxeetako batean bizi zen. Gauez edo, zarata entzun zuten. Ibilgailuak. Garai hartan ez zegoen beribil askorik. Zer edo zer barrundatu zuten, beraz. Kontua da hamasei lagun fusilatu zituztela. Kintanak eta esaten omen zuten: "Non ibili ote dira?", baina, noski, beldurra airean bizi ziren eta ez zegoen ezer esaterik.

Azazetan gora, 16. kilometroa agintzen duen mugarri atzeko basoan fusilatu zuten Jesus Estrada Arrondoren osaba.





### Baina jakin zen.

Pedro Anitua abadearen eskutitz bat da argi-emaile. Komisariara joan zen, galdezka: “Zer da hau? Zer gertatu da? Kartzelatik irten omen dira hamasei lagun, eta ez dira etxera itzuli. Non dira?”. Garai hartako polizia gizatar eta zitale-netako batek, Bruno Ruiz de Apodakak, antzarak ferratzera bidali zuen: “Auskalo non diren! Eurek jakingo dute! Festa eta parrandan ibiliko dira!”. Gutxi gorabehera esanda. 1942 inguruan, hiru lagun-en hezurak Azazetako zulotik erdi ezkutuan atera eta Santa Isabel hilerrian ehortzi zituzten: Jose Luis Abaituarena, Collellena eta Teodoro Gonzalez de Zaraterena. Jakin dezazun, Collell kataluniarra zen, ez zuen hemen familiarik eta Gonzalez de Zaratetarren panteoian sartu zuten.

### Hiru horiek besterik ez zituzten atera.

Beste inor ez. Gainerako hamahiruak mendian geratu ziren. Badut eskutitz bat gure osaba Jose Mari Estrada Abalosek Argentinatik bidali zidana, asko lagundu didana. Osaba 1949an joan zen hara, eta ez da egundo itzuli. Honela ari da eskutitz hartan, kartzelan atxilo dagoela, bere osabarekin batera, ziega ezberdinetan bada ere: “37ko martxoaren 31n, desorduan, ziegako atea jo zieten hamasei lagunei, libre irten zitezten. Inork ez zuen susmo txarrik

## Nortasun agiria

Jesus Estrada Arrondo (Gasteiz, 1942). Zazpi urte zituela hil zitzaion aita, 1949ko martxoan. Handik berehala, Argentinara jo zuten Jesusen osaba-izeba bik, osaba fusilatuaren historia osatzen lagundu dioten berriemaileak. Familiak amaren izerdi handiz egin zuen aurrera eta, haren ohoretan, “Estrada Arrondo” deitura biak hots egiteko ohitura du. 1967an kartzelan egon zelarik, 1937an aita hila zigortu zuten funtzionario berek zigortu zuten. Osabaren heriotza argitzea du bandera, aspaldidanik. Ezpata horrek zulatzen du Jesus Estrada Arrondoren bihotza eta ez du onik izango krimena aitor dezaten arte: 37ko apirilaren leheneko egunsentian Gasteiztik Lizarrara bidean, Azazetan gora, Inimiritxin egin zuten fusilamendua. Hamasei lagun hil zituzten. Haiak hil eta haien senide eta oinordeei, berriz, bizitza betea galazazieten.

egin. Gure osaba, Manuel Abalos Negeruela, Jesus Estradarekin batera zegoen ziegan. Agurtzerakoan, ‘ea neu ere laster libratzen nauten’ edo horrelako zerbait esan zion Estradari gure osabak. Askatasun agiria sinatu zuten –irudipena dut horrela egingo zutela–, baina laster jabetu ziren amarruaz, kalera atera beharrean beste ziega batean bildu zituztenez. Martxoaren 31 esaten dugu beti, baina baliteke apirilaren leheneko egunsentia izatea... Jende askok gogor jo zuen protesta, baita gobernadorearen aurrean ere. Besteak beste, Pedro Anitua abadeak, Abaitua familiaren zuzendari espirituala zenak eta, gerora, Gasteizen lanbide eskolak sortu zituenak”. Abade hau dela eta, 1945 edo 47an gure aitonari joan omen zitzaion esanez Azazetako gorpuk bildu eta hilerrian hobiratzeko asmoa zutela. Ea semearen gorpua ere –gure osabarena–, aterako zuten galdetu zion gure aitonari. Aitonak, gorpua altxatzeokotan, nola hil zituzten esan behar zutela, asasinatu egin zituztela, fusilatu. Gure aitonak uko egin zion bere semea Azazetako zulotik

besterik gabe ateratzeari. Eta uste dut besteek ere ezetz esango ziotela Anitua abadeari, gorpuk han iraun zuten-eta, luzaro.

### 1978ra arte.

Bai. Orduan, Joseba Azkarragak, artean EAJkoa, gorpuk Azazetatik atera eta hilerrian lur-

## Pedro Anituaren abezea: a

Behean izenpetzen duenak, Pedro Anitua eta Aranberri abadeak, Gasteizen Landazuri kalean, 11 zenbakian, 8. solairuan, eskuineko atean bizi denak, honakoa jakinarazi nahi du:

a) Garai hartan Ordena Publikoaren Arduradun zen Joaquin Pelegrinek Gasteizko kartzelatik hainbat preso "libre irteko agindua" eman zuela 1937ko martxoaren 31ko gauean (...). Apirilaren lehenengoan, arestian aipatu dugun egunaren biharamunean, Gasteizko erresidentziako nagusi zen aita Rekalderengana (S.J.) jo zuela idazki hau izenpetzen duenak, bezperan "libre" utzi zituzten haien gaineko desagertzeari buruzko xehetasun eske. Aita Rekaldek adierazi ziola goian aipaturiko pertsonak exekutatu eta lurperatu egin zituztela Azazeta mendatean, 16. kilometroaren parean, mendian gora eskuin aldera 100 bat metro joanda. Gainera, hau izenpetzen duenari haietako baten enkargu pertsonala ekarri ziola, Jose Luis Abaitua eta Perez hildakoarena, haren hiru seme-alaben ardura har zezan –umezurtz geratuko baitziren–, bai eta arrebera ere. Horrekin batera fusilatuek beren senitartekoei bidaltzen zizkieten zenbait orogari, medailak eta gurutzak, ekarri zizkiola aita Rekaldek izenpetzaile honi.

peratzeko tramiteak egiten hasi zen. Azazetara joan eta ez omen zuten leku zehatza topatu. Berriz joan behar izan omen zuten, harik eta gorpuak aurkitu zituzten arte. Salbatoreko hilerrian ehortzi zituzten hamahiruak, denak panteoi berean: 132. etxadian, 114. zenbakian. Jarri dute hilarria, eta horra akatsak ageri: hamabi izen baino ez daude hilarriko zerrendan. Beste akats bat: izen bat oker emanda dago. Eta, nire iritziz, zuzendu beharreko beste zera bat ere badu harri horrek: "1937ko martxoaren 31n Gerra Zibilaren eraginez ondorioz hilak" dio, baina "Gerra Zibilaren eraginez ondorioz" ez, asasinatu egin zituzten eta kito!

### Horiek 1978koak.

Harrezkero, lankide batekin hizketan, esan zidan bere aitak zer edo zer aditua zuela Azazetako hildakoen gainean. Nik, haren aitarekin hitz egin nahi izan nuen, lekua zehatz non zen jakin nahi nuelako. Horrelaxe hasi nintzen!

### Lehenago ere bazenkin zer edo zer, hala ere.

San Vitor Manuel Iradier mendizale taldearen mendi kutuna da. Urtero igotzen gara hara, bertan jartzen dugu jaiotza. Bada, behin edo behin, Juanito Salazar eta Isaías Grajales mendizaleek-eta, esan izan zidaten: "Hire osaba hor inguruan zegoak, hor akabatu zitean!". Baina ez zuten bes-terik esaten, artean Bruno Ruiz de Apodaka

## kulturagenda

## Maiatzaren 1etik 15era



Urdaneta kalea, 9 | 20006 donostia

Erakusketak

Jose Ramon Amondarain

Sin fin. Islaren isla

Apirilaren 19tik ekainaren 16ra

Erakustaretoa



Isidoro Guinea

Eta dekorazio arteak

Apirilaren 25etik ekainaren 16ra

Ganbara aretoa



Serigrafia ikastaroak

Hastapena

Maiatzak 14-25

Koordinazioa:

Allende Arnaiz, Nerea Lopez

Taldeak: 6 lagun gehienez

Orduetgia: 16:00-20:00

Kristobaldegi, 14 | 20014 donostia | www.arteleku.net

Audio digitala grabatu eta editatzea:

Ardour eta JAMin

Maiatzak 14-18

Koordinazioa: Gipuzkoako

Software Askea Elkarteak

Prezioa: 30€

Taldeak: 10 lagun gehienez

Orduetgia: 10:00-14:00





## Jesus Estrada Arrondo

bizirik zegoen eta ez zen giro Gasteizen. Urteak geroago, 2000ko apirilaren 26an, Azazetara joan ginen, lankidearen aitak, Frantzisko Kintanak, bertaraino eraman ninduen. Neure oharretan idatzita daukat: “2000ko apirilaren 26an, lanetik irten, autoa hartu eta Azazetara joan gara Pako Kintana, haren seme Anjel eta hirurok. 16. kilometroa baino berrogeita hamar bat metro lehenago, autoa utzi eta mendian gora hasi gara, Inimiritxi aldera. 18:30ak ziren, giro ederra, lainatua...”. Tira!

### Segi, Jesus, segi irakurtzen...

“... giro ederra, lainatua, nahikoa argi badugu oraindik. Mendian gora ari gara, bazterrak aztertzen, mendiak berak esan diezagun non den lekua zehatz... Pako bila eta bila ari da. Gu, haren alboetan ari gara, hari lagundu nahian, oraintxe metro batzuk gorago, oraintxe beherago. 19:15ak inguruan, lekua topatu dugu. Inimiritxi iturriaren parean da. Esana zidatenez, errekastoa-ri beste bide bat harrarazi zioten 1945ean, hiru gorpu atera zituztenean, urak gainerakoen gorpuzkinak honda ez zitzaiz. Bertan gaudela, behiala iturriraino izan zen bidezidorra ikusi dugu. Datu guztiak bat datoz: zabaldoa, lur hutsa, hauxe da lekua. Gurutze moduko bat egin eta bertan ezarri dugu. Pentsaketan ari naiz. Gure aitona-amonek aipatzen zituzten izenak datozkit: Apodaka, Turuta, Betokerra... Benetako kriminalak Gasteizen, zein eta zein garbitu, zein eta zein zigortu erabakitzen zutenak. Haientzako kalifikatzaileak ez zaizkit falta. Nola igorazi zituzten hamasei lagunak, nola eginazazi zuloak, nola fusilatu zituzten, nola garbitu zituzten beren esku atzaparrak ondoko iturrian... Beherantz hasi gara, irispidea gogoan hartzeko ahaleaginean. Lekua ondo seinalatzeko asmo sendoa hartu dut: bidea margotu, argazkiak egin, bideo-kameraz grabatu... Ez diet nire bi lagunei ezer esan, errezelotan has ez daitezten. Gasteiza jaitsi gara. Euria dakarrela ematen du. Ez du momentuan egin, iluntzean egingo du. Etxera heldu eta eskutitz bat postontzian. Langraizeko kartzelara bidali nuen eskari baten erantzuna da. Dio gure osaba, Jesus Estrada Abalos, 1936ko ekainaren 30ean atxilotu zutela, eta 1937ko martxoaren 31n libre utzi zutela, Langraizetik bidali zidaten egiaztagiria ez dio fusilatzeraren eraman zutenik! 2000ko apirilaren 19an bidali zidaten agiria da!”.

...  
Agirion bidez, gaitz erdi, Iruraiz-Gaunako erregistro zibilean osaba hilik dagoela agertzea lortu dut. Osterantzean, “desagertua” jarriko zioten. Nik “fusilatua” jar zezaten nahi



Osaba fusilatu zuten lekuan makilekin gurutzeko egina du Estradak.

nuen, horretan saiatu nintzen, baina “hila” jartzea besterik ez dut lortu. Zenbat urte eta gero? 2000. urteko abuztuaren 3a arte ez nuen lortu hiltzat eman zezaten! Hirurogei urte baino gehiago igaro eta gero! Bitartean, “desagertua”. Harrapazak hori! Santa Isabel hilerrian ehortzi zituzten hiruak bai, “hilak”,

### Abezea: b

Handik bost urtera, hau izenpetzen duenak epaitegiaren aurrean salatu zuela Jose Luis Abaituaren gorpua goian aipaturiko lekuan zegoela, eta zegoekin baimenaren jabe, Victor Lauzurika (g.b.) eta haren laguntzailearekin, auzitegi mediku Brizuela jaunarekin, eta Dulantziko udal-barrutiko mediku Karlos Lazpita jaunarekin, ondoko gorpuak atera zituztela: lehenengo, Jose Luis Abaituarena; egun batzuk geroago, Teodoro Gonzalez de Zaraterena eta Jose Collellena. Gorpuen artean, goian aipaturiko lekuan bertan lurperatuta irauten zuten gainerakoen gorpuzkinak ikusi ahal izan zituztela.



baina gainerako hamahiruak? Nik gure osabaren berri dakit, nahita ere ezin ezer esan gainerakoiei buruz, ez dakit eta. Nonbait, besteren baten senideren bat ere mugitzen hasita dago, nirekin harremanetan jarri nahi omen du. Ikusiko da. Kontuan hartu hirurogeita hamar urte joan direla, hirurogeita hamar urte! Nik, behintzat, bide handia egingo daukat. Lekua, erregistro zibila, hilerria, egiaztariak, eskutitzak, lekukotasunak, dokumentazioak, argazkiak... Antojagarria izateraino jardun dut. Orain dela bost urte, adibidez, ekitaldi bat egin zen Salbatore eta Santa Isabel hilerrietan, EAJk eta EAk antolaturik omen. Izan ere, egia esatera, alderdiei buruko mina egin arte jardun nuen matrakan, esanez omenaldia egin behar zela Azazetako fusilatuen oroime- nez. Azkenean, egin zuten. Beharko egin!

### Osaba fusilatua izena daramazu...

Irudipena daukat aitonak ni semetzat nindukala. Alegia, itzuli ez zen Jesus semea nintzaion. Amona, aldiz, semea noiz edo noiz itzuliko zitzaioala konbentzitu zegoen. Edo bere burua konbentzitu nahi zuen. Bere Jesus semea libre utzi zutela esan ziotenez, azalduko zela zioen, edo esaten zion bere buruari. "Non da zuen semea?" galdetzen ziotelarik, beti betikoa esaten zuen: "Gure semea libre dabil. Edozein egunetan azalduko zaigu". Baina bazekiten

## Abezea: c

Atzo, 1978ko uztailearen 31n, Gasteizko hileta-zerbitzuko Jesus Lauzurika eta haren langileei lagundu ziela, lurperatzea gertatu zen lekuaren zuzentasuna egiaztatzeko. Ondoren, gainerako hamahiru gorpuak jaso, hilkutxan behar bezala paratu eta erretoa egin zuela bertako parroko Pedro Perez de Arenaza jaunak (...). Gorpuzkinak hiri honetako Salbatore hilerriera eraman zituzten. Eta behar bezala ageri dadin, komeni den lekuan eta ondorio guztietarako, agiri hau sinatzen dut Gasteizen, 1978ko abuztuaren lehengoan. Pedro Anitaua

## AZKEN HITZA

### Bruno Ruiz de Apodaka hiltzailea

"Aita Karmengo komentukartzelan egon zen. Ez zen Bake kalekora iritsi. 47. ziegan. Monjeen gelak ziegan egin zituzten. Gero, ni ere eduki ninduten kartzelan. Gure aitaren garaian harrotu ziren gizatxarrak ezagutu nituen. Bruno Ruiz de Apodaka eta beste. Hura zapataria baino ez zen, erretoke odol txarreko bat, matxinatuekin bat egin eta direnak eta ez direnak egin zituen, bai 37an gure aitaren garaian, bai eta 67an ere gure sasoiaren, eta bien bitartean ere! Hogeita hamar urte baino gehiago jardun zuen, txitxi baino harroago, zein akabatu, egurtu edo zigortu gogoak emanda bezala erabakitzen! Bruno Ruiz de Apodaka ez zen bakarra izan. Brigada sozialekoak batetik, guardia zibilak bestetik... Betokerra eta! Beste bat ere izan zen, gerora ETAk hil zuena".

hilda zegoela, jakingo ez zuten bada! Hara, gure aitona zenak familiaren datu biografikoak idatziaz utzi zituen koaderno batean. Bertatik irakurriko dizut: "Jesus Estrada Abalos, 1911ko abuztuaren 24an Gasteizen (Araba) sortua, Gasteiz inguruan, Egiletako portuan hil zen, asasinatua, 1937ko apirilaren leheneko egunentian. Oroimenez, bere izena jarri zioten Estrada-Arrondo familiako lehenengo semea-ri". Alegia, niri. ■



**Eibarko COLISEO antzokia**  
 | APIRILA | UZTAILA | 2007 |

Teatro COLISEO antzokia  
 Merkatu kalea, 2  
 20600 Eibar

tel. 943 708 435 - 708 439  
 cultura.ei@eibar.net  
 www.eibar.net

FRAN LASUEN & EGUEN BANDA apirilak 27	TRIKITRAKA TRIKITRON Txirri Mirri eta Txirribiton maiatzak 7, 8	CORO ARS VIVA ESCOLARIA NUESTRA SEÑORA DE BEGOÑA maiatzak 25
TXURI - BELTZ Klaka Taldea • apirilak 28	LARRU HAIZETARA "EZ DOK HIRU" Bikoteak • maiatzak 11	"EL CASERIO" Coral del Ensanche ekainak 8
CHELITO musika banda apirilak 29	ORQUESTA DE LA FUNDACIÓN DE MÚSICA DE IRUN maiatzak 12	CINCUENTONES Antzokia Teatro ekainak 15
The Pub Militar OSKORRI • maiatzak 4	BENITO LENTXUNDI maiatzak 18	JUAN BAPTISTA GISASOLA musika eskola ekainak 22
BELDURREZKO ZINE MARATIA SKA 18 • HAMBAL, EL ORIGEN DEL MAL • EL GRID 2 maiatzak 5	UMEEN BERTSO JAIALDIA maiatzak 22	Euskal Herriko Gazteen Orkestra uztailak 18
IFURRIADA lasterketa maiatzak 6	NORTON KLOB maiatzak 25	

2007ko maiatzaren 6a

ARGIA